

KULTURA JASONE OSOROK GRETA IZENEKO LIBURUA ARGITARATU DU • GEHIGARRIA KILIBARRREN

KIROLA TXOMIN ROGEL EUSKADIKO EHIZA XEHENKO TXAPELDUN

BARRREN

ASTEKARIA

EL COLOMBIARRA ASTEKARIA • 2003ko azaroaren 28a/XI. urtea/467. zkia

EMAKUME ERASOTUA
4. ezkerre

GENERO INDARKERIAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Edozeini gerta dakioke


MASUMI'S

Moda

gazte
emakume
mutil
neska
gizonezko



*Erosketa gurean egitearren
Gabonetako loteriako
19.512 zenbakiaren
euro bateko partaidetza
oparituko dizugu
(dauzkagunak agortu arte)*



Bandolli
JEANS



Bandolli jeans eta **Lee** marken saltzaile eksklusiboa

Nafarroa Plaza z/g

Tel.: 943 74 35 83

40 URTE 40 ISTORIO



ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA



37 Elgoibartik EUSKAL HERRIRA!

Elgoibarko Izarraren berezko lan eremua Elgoibar bada ere, gure azken helburua Euskal Herri euskalduna ezagutzeko da. Elkartearen indarrak, batez ere, Elgoibarren zentratzen ditugun arren, gure interesak eta helburuak ez dira Elgoibarrera bakarrik mugatzen. Euskararen berreskuratze prozesua behetik gora (herritik naziora) eraiki behar den prozesu bat bezala ulertzen dugu, baina beti ere nazio mailako interesak eta beharrak ahaztu gabe. Izan ere, euskal herriek osatuko dute Euskal Herria, baina euskal herriak osatzeko Euskal Herria ere beharrezkoa da.

Bueno, mingaineko korapiloa askatu eta goazen harira.

EUSKALDUNON EGUNKARIari hasiera hasieratik lagundu genion. Bai sorrera prozesuan eta baita lehen urteetan ere. Eta Egunkariaren jaiotza bertatik-bertara ikusi bagenuen, honen azkenaren lekuko ere izan ginen, zoritxarrez. Baina Egunkariaren lekukoa **BERRIAK** hartu du, eta honen alde ere hamaika ordu sartu dugu Egunkariaren Aldeko Batzordearekin batera.

IKASTOLEN aldeko jaietara ere zenbat lagun joan ote da Elkartek antolatutako autobusetan. Kilometroak dira estimazio gehien izaten dutenak, baina besteetara ere ez dugu huts egiten. **URRUÑA**ko ikastolari lagundu genion duela urte batzuk, eta **IRUNBERRI**koek ere duela gutxi jaso dute elgoibartarron laguntza.

98an Elgoibarrek **BAI EUSKARARI** esan zuen. Elgoibarko euskalgintzako beste erakundeekin batera, gogoz jardun genuen Bai Euskarari kanpainan. Eta, amaitzeko, 2001ean Elgoibarko *azken pezetak eta lehen euroak* batu genituen Kontseiluaren alde.

Ikusten duzuen moduan, Elgoibartik Euskal Herriari ematen, Euskal Herritik Elgoibarrek jaso dezan.

Imanol Larrañaga

iritzia



Sehaska kulunkatzen duen eskua

Azkeneko hilabete hauetako albisteetan ez dago ezer berririk, zaharrak berri esan ohi den bezala. Irakeko eta Palestinako liskarrak egunero agertzen dira albistegi eta egunkari guztietan. Eta gizarteak kontrako iritzia aurkeztu izan duen arren, liskar hauen sortzaileek aurrera eta tinko jarraitzen dute beraien jarrerekin, nahiz eta arrazoiak ezeztatuak izan. Eta esaera zahar batek dioen bezala: "Usteak erdi ustel", baina honek ez ditu geldiarazten.

Ekintza hauek burutzeko mandatari batek azkeneko hitza bere esku edukitzea ez da batere onuragarria munduko biztanleentzat. Mandatari honi ez litzaioke horrelako erabakiak hartzeko eskubiderik eman beharko. Mandatari horrek legebiltzar baten aurrean hartutako erabakiari buruzko eztabaida sortu beharko luke, eta are garrantzitsuagoa dena, herria entzun beharko luke. Baina, urteen poderioz eta bizioak eraginda, mandatari hauek gorra bihurtu dira, apropos, gizartearen oihartzuna entzuteko eta kasu egiteko orduan. Baina gaitza ez da hemen bukatzen. Munduko beste herrialdeen iritzia eta oposaketak ez du ezertarako balio, nahiz eta hauek Nazio Batuen Erakundearen (zerbaitetarako balio baldin badu) egon eta elkarte honetan erabaki guztiak demokratikoki hartuak izan. Baina berdin dio, azkenean mandatari honek potroetatik irteten zaiona erabakitzen du aterako dituen irabazi guztiak hobetsita.

Baina, bai denborak eta baita historiak ere, azkenean bakoitza bere lekuan jarri eta epaituko dituzte, bakoitzaren ekintzak salatuz eta edozein gizarteren aurrean beraiek egindako akatsak azpimarratuz (edo hala espero da) behintzat.

Jokin Martinez

Kexak	5
motz Motz.....	10
gehigarria	13
kirolak	20
aGenda	28

HIESAREN EGUNAREN MANIFESTUA: DISKRIMINAZIORIK GABEKO EGUNA

Hiesaren eguna erreibindikazioen eguna izan ohi da, deklarazioen eguna, eskerren eta borondatearen eguna. Aurten, guzti horiekin batera istorio bat kontatu nahi dizuegu:

Istorio hau bikote batekin hasten da. Bikote honek bi seme alaba ditu, 7 eta 5 urtekoak, eta goizero lanera joan aurretik ikastolara eramaten dituzte.

Arratsaldean ama joaten zaie bila, eta gualdean denak biltzen dira etxean afaritarako. Igandeetan aiton-amonen etxera joaten dira eta han beste senitartekoekin elkartzen dira elkarrekin bazkaldu eta haurrak beren artean jolasteko.

Beste istorio hau ere bikote batekin hasten da, biak seropositiboak dira, mutilak egunero 8 pastila hartu behar ditu GIB birusa kontrolpean kontrolpean mantentzeko, eta neskek aldiz 10 pastila hartu behar ditu horretarako.

Hilean behin sendagilearengana joan behar dira birusaren eragina nola doan jakiteko frogak egitera. Medikazioaren ondorioz Kolesterola altua dute, eta beraz grasarik gabeko janak egin behar dituzte; gibela ere bereziki zaindu behar dute egunero pastila asko hartzen dituztelako, eta hauen efektuek gibelean eragina dutelako.

Asko maite dute elkar eta beren sexu harremanetan ere zaindu egiten diote bata besteari, beti preserbatiboa erabiltzen baitute koinfekzioa ekiditeko.

Bi bikote hauek Ander eta Miren dira, bizitzan zailtasun asko izan dituzte, baina amesten zutena lortu dute, famili bat izatea alegia, bikote dira, gurasoak dira, langileak dira, eta seropositiboak dira.

Aurten Munduko Osasunaren Erakundeak "Diskriminaziorik Gabeko Eguna" bezala izendatu du Hiesaren Eguna, eta hori da istorio honen lema ere bai, ez diskriminatu istorio hauek, biak istorio bakar bat direlako.

Errotatxo

EZ ADIORIK

Metalkua eta Aista mendi barrenean bata gainean bestia, handik sortua zinen gure Juliantxo maitia ume alai, mutil jator gizon paregabekoa, zure agurrak sortu digu amairik gabeko malkoa baina ziur zure oroimem goxoak emango digula kemena arinago izan dedin guztiok daukagun pena zu ezagutzeko plazerra izan degunok ez zaitugu ahaztuko

Lehengusu-lehengusinak 15.355.428

MUNDUKO ESKU POLITXENEN JABIARI

Hemendikan aurrera ezin izango dou zure eskuen hegaldixen xarmiaz gozau,

mundua hain sakon sentitzen zaben eskuak, esku artistak, esku zintzuak, esku erromantikuak, esku leunak.

Hemendik aurrera ezin izango dou zure eskuen hegaldixen xarmiaz gozau,

baina ez kezkatu, hatzapar bakoitzetik jariatzen zendun arte hari bakoitzakin mundua bilduko dou-eta, lur azala estu-estu tapau arte, eta mataza horrekin pelotan jardungo dou, jolasian, aspertu arte. Artista eskuak.

Igor Odriozola Sustaeta

NA: 15.390.411

ASTEKARIA BaRREN

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12
Publizitatea:
☎ 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-posta:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.com/barren
ARGITARATZALEA
Elgoibarko Izarra

LAGUNTZALEA Elgoibarko Udala KOORDINATZALEA Ainhoa Andonegii ZUZENDARIA Asier Orbea GEHIGARRIEN ARDURADUNA Maite Uriarte PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZALEA Jaione Unanue GERENTZIA Jon Peli Uriguren KOLABORATZALEAK Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.130 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.





◆ Autopista sarreran dagoen baserriko bizilagunek ondorengo kexa azaldu digute: **“Autopistarako peajera bidean kotxe mordoia egoten da aparkatuta, eta baserritik ateratzeko ez dugu bisibilidaderik izaten.** Inguruko enpresetan lan egiten duen jendeak autopistara bidean aparkatzen du, eta guretzat oso arriskutsua izaten da baserritik irtetea. Susto bat baino gehiago izan dugu dagoeneko, eta istripu larriren bat gertatu aurretik arazoa konpondu beharko litzateke”.



◆ Emakume batek esan digunez, Urasanditik Madalako errotondara joateko Santa Klararaino joan behar da buelta ematera: **“Urasanditik behera bidea egin dute errotondaraino, baina dirudienez, igotzeko bakarrik da, izan ere, debeku seinale batek, errotondarako sarrera galarazten du.** Ingurune horretan jende askok garajea dauka, eta Deba aldera joateko Santa Klaran buelta eman beharra ez da oso logikoa, errotondara sartzeko bidea egin dutela kontuan izanik”.

? GALDERAK

◆ Herritar batek “Arrantzaleen Pasealekuari” buruz galdetu digu: **“Arrantzaleen Pasealeku berrian eskaileren ondoan ezinduentzako aldapak egiteko asmorik ba al dago? Oztopo arkitektonikorik gabeko pasealeku bat egitea egokia izango litzateke, polita eta suabea, denontzako pasealekua”.** Udaleko Hirigintza Sailarekin hitz egin dugu, eta esan digutenez ez daukate inolako aldaparik jartzeko asmorik. “Berez, helburua ez da pasealekua egitea, kolektorea egin dela aprobetxatuz, sortu dute pasealekua, baina urtean gutxienez hamar aldiz urak hartuko duela aurreikusten da. Ezinduentzako toki oso arriskutsua izan daiteke.”



Barreak, Birrak eta Barreak



©KOKOE 2003



Emakume

TRATU TXARRAK

Emakumeak, hil dituztenean edo jipoi larriak jaso dituztenean bakarrik ageri ei dira komunikabideetan. Dena dela, hori baino gehiago dira emakumeek emakume izate hutsagatik jasan behar izaten dituzten gehiegikeriak: baldin eta zure bikotekideak, familiakoren batek edo zurekin bizi ohi den pertsonak mehatzatzen, iraintzen, etxean gertatzen diren gauza txar guztien errua egotzen, jendaurrean nabarmen uzten, zure itxura fisikoagatik gutxiesten, beste pertsona batzuekin harremanak izatea eragozten edo zailtzen, bultzatzen, jotzen, edo ta sexu harremanak izatera behartzen bazaitu, tratu txarrak jasaten ari zara.

PROZESU ZIKLIKOA

Tratu txarrak prozesu ziklikoa dira. Indarkeria kasuetan 3 egoera ematen dira, behin eta berriz errepikatzen direnak. Zikloaren bukaerara iritsi orduko, hasierako egoerara itzultzen da, prozesua etengabe errepikatuz.

1) Tentsioa metatzen hasten da.

Erasotzailea: Tentsioa, frustrazioa, asetasun eza, mehatxuak.

Biktima: Beldurra, pena, antsietatea, hiperbigilantzia egoera.

2) Indarkeria fisikoaren leherketa-fasea.

Erasotzailea: Kontrola galdu. Biolentziaren erabilera.

Biktima: Haserrea, umilazioa, tristura, inpotentzia, etsipena.

3) Barkamena.

Erasotzailea: itxurazko damutzea, hitzemateak, opariak, biolentziaren amaiera

Biktima: Haserrearen amaiera, itxaropenaren itzulera, aitzakiak, egitateen ezeztapena.



ZER EGIN?

Berehalako eraso baten aurrean larrialdi zerbitzuetara jo edo poliziarri deitu. Erasoaren ostean, konfiantzazko lagun bati guztia kontatu eta laguntza eskatu.

Lesio fisikorik edo psikikorik baduzu, joan zaitez osasun etxe batera. Txosten medikoaren kopia eskatu eta Ertzaintzara eraman salaketa jarri nahi izanez gero.

Zauririk ez badago, Udaleko Gizarte Zerbitzuetara joan, eta bertan laguntza eta aholkua eskatu. Argibideak emateaz gain, nola eskuratu doako laguntza azalduko dizute: laguntza psikologikoa, juridikoa, ekonomikoa, ostatua...

Gizarte zerbitzuetako baliabideak:

! Premiazko harrera-egoitza: Hotel edo pensio batean 3 gaueko premiazko egoitza.

! Aterpetxe edo apartamendua: Bailarako bizilagun eta udalerriek erabili

ahal izateko pisua. Bailara mailako batzar batek aztertzen ditu kasuak banan-banan.

! Laguntza juridikoa: Abokatu pribatu batengana dohainik joateko aukera. Izaera informatiboa du, egoera legala azaltzeko balio du.

! Laguntza psikologikoa: balorazio psikologikoa egin ostean, tratamendua hasten da beharra badago.

! Doaneko justizia: Baliabide ekonomiko nahikorik ez izan eta banaketa prozesua hasi nahi izanez gero, Gizarte Zerbitzuek bere gain hartuko dute ardura.

Etxean egoera jasanezina bada eta babesa behar izanez gero, babesteko agindua eskatu daiteke epaitegian, Fiskaltzan, Biktimak Laguntzeko Zerbitzuan, Gizarte Zerbitzuetan edo edozein polizia etxetan.

Bestalde, tratu txarren ondorioz etxetik alde egin nahi duen emakumeak Gizarte Segurantzako txartela, N.A.N.a, diru piskat edo kreditu txartela, familia liburua eta etxebizitzaren jabego eskriturak edo alokairuaren kontratua (fotokopia gutxienez) berarekin eramaten saiatu behar da.

Interesko telefonoak:

Elgoibarko Gizarte Zerbitzuak:
943 74 10 08

Udaltzailgoa: 943 74 13 94

Ertzaintza: 943 20 40 80

Ambulategia: 943 03 26 10

SOS-Deiak: 112

Mendaroko hospitala: 943 03 28 00

SAV (Biktimei laguntzeko zerbitzua):
943 47 45 17

Genero Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna izan zen azaroaren 25ean, martitzenean, izan diogu, tamalez ospatzeko ezer gutxi baitago. Emakumeek emakume izate hutsagatik gehiegikeria asko jasan behar izaten dituzte askotan. 2002. urtean 2.681 tratu txar salaketa izan ziren Hego Euskal Herrian. 2003ko lehen sei hilabetetan 1.044 salaketa jaso ditu Ertzantzak (544 delitu, 500 falta eta 2 hilketa) 1999tik 2003ko uztaila bitartean, gutxienez 13 emakume hil dira tratu txarren ondorioz. Emakunderen arabera, emakumeen %10ak jasaten dituzte tratu txarrak. Horieta %30ak baino ez dute erasotzailea salatzen. Elgoibarren ere badira tratu txar kasuak eta Ongizate Sailaren bitartez 20 urtez tratu txarrak jasan dituen emakume elgoibartar baten esperientzia zuenganatzeko aukera izan dugu.

izate hutsagatik

Tratu txarrak jasan dituen emakume elgoibartarra

“Hogei urtetan jasan ditut tratu txarrak”

Noiz hasi zinen tratu txarrak jasaten?

Ezkundu eta hamar urte beranduago hasi ziren lehen tratu txarrak. 20 urtetan zehar jasan ditut.

Zer nolako tratu txarrak izan dira?

Tratu txar psikologikoak izan dira; pertsona bezala gutxiesten ninduen, jendearen aurrean leku txarrean lagatzen ninduen, inor baino gutxiago nintzela pentsa nezan, eta modu horretan, bera nire gainetik geratu ahal izateko.

Tratu txar psikologikoak okerragoak direla esaten da.

Denbora luzean baldin badira bai.

Zer jarrera hartzen zenuen tratu txarren aurrean?

Hasieran nire desadostasuna adierazten nuen, baina ezertarako balio ez zuela ikusirik, jarrera sumisoa edo menpekkoa hartzea erabaki nuen umeez istilurik ikusi ez zezaten.

Zergatik uste duzu tratu txarrak ematen hasi zela?

Ez dakit.

Inoiz sentitu al zinen errudun, edo hala sentiarazi zintuen?

Istiluentatik ez, gauzak ahal nituen bezain ondo egiten saiatzen nintzen.

Depresiorik izan al duzu?

Bai.

Denuntziatu al duzu inoiz?

Ez.

Zergatik kostatzen da hainbeste salatzea?

Familiari minik egin nahi ez diozulako eta berari ere minik ez ematearren. Askotan dena bukatu egingo dela uste duzu eta aurrera jarraitzen saiatzen zara.

Eta orain zer?

Bizitza lasaiago baten esperantzarekin nire burua gehiago maitatzen hasteko ordua dela deritzot.

Zer sentitzen duzu gizonengana-ko?

Ezer ere ez.

Nolakoa izan da familiako eta lagunen jarrera?

Laguntza eta maitasuna jaso ditut maite nauten pertsonengandik.



Askatasuna eta erres-

Askotan askatasun hitza entzutean gaztediarekin erlazionatzen dugu eta errespetua helduaroarekin, baina bi hitz hauek baino erlazionatuagorik ez dago munduan.

25ean Etxeko Tratu Txarren eta Sexu-erasoen Nazioarteko Eguna izan da, baina hau niri ez zait inoiz gertatuko. Etxekoandreei bai, baina neri? gaztea bazara, ikasketak badituzu eta erdi/goi mailakoa bazara...ALARMA: ZU ERE ARRISKUAN ZAUDE! "Inoiz ez nuke agoantatuko eraso bat, inork jotzerik edo bortxatzerik..." hau da pentsatzen duguna. Argi dagoena da aurten Estatuan ia 90 emakume hil direla tratu txarren eta sexu-erasoen ondorioz, baina ez dakigula zenbat eta zenbat emakumek halako egoerak isilpean jasaten jarraitzen duten, izan ere, oraindik emakumeen %20ak bakarrik salatzen dute. Oso egoera zailak dira eta nahiz eta errez esan denuntziatu behar dela, egunerokotasunean beldurra daukagu erasotzaileak zer neurri hartuko dituen ez dakigu, gure ingurukoek zer pentsatuko duten, nola babestuko naizen... eta beste gauzatxo bat, nik pentsatzen badut niri ezin zaidala gertatu, nahiz eta niri gertatu, ez dut onartuko eta agian ez naiz gertatzen ari denaz konturatuko.

Tratu txarrek eta sexu-erasoek ez dute desberdintasunik egiten adin, maila sozial edo egoeren artean, guzti honek berdin dio, bikote egonkor batean edo gau bateko ligan gertatu daiteke. Argi dagoena da gai honetan sentazioak oso garrantzitsuak direla, beraz nik sentazio negatibo bat badaukat, moztu egin beharko dut egoera hori eta adierazi egin beharko dut sentazio hori, ez mantendu bestearen erreakzioaren beldurrez. Norberaren askatasuna bestearena hasten denean amaitzen da eta hau errespetua da.

Eli Moreno, *Biluzik Sexologia Zerbitzua*

Loredi Salegi elgoibartarrak "sexu indarkeria" izeneko hitzaldia eskaini zuen pasa den azaroaren 25ean Kultur Etxean. Gizarte Langile ikasketak eginak ditu eta irakaslea izateaz gain, Ongizate Sailean lan egiten du Bizkaiko Udal batean. Loredik berak azaldu digunez arazoaren aurrean sentsibilizazio gehien duen jendea hurbiltzen da horrelako hitzaldietara, baina arazoa beraien azalean bizi dutenak ez dira ausartzen, ezin baitute sartuta dauden zirkulutik atera. Persona hauentzat lagungarri izan nahi du elkarrizketa honek.

"Tratu txarrak gizarte guztiari dagozkion arazo onartezina dira"



■ **Tratu Txarren arazoaren aurrean gizartea behar bezain beste sentsibilizatuta dagoela uste al duzu?**

Ikerketen arabera, badirudi gazteria ez dela gehiegi aldatu aurreko belaunaldiarekin konparatuz. Gazteen %22ak bikote barruan indarkeria justifikatzen du. Hau larria da, ezta? Genero indarkeria justifikatzen dugu, izan ere, emakumeok hau guzti hau eta gehiago jasateko heziak eta prestatuak izan gara.

■ **Tratu txarrak etxeko arazoa balira moduan ikusten al dira?**

Horixe da arazoa. Tratu txarrak pertsona bakar batek jasan arren, gizarte guztiari dagokion arazo onartezina da.

■ **Nola erantzun behar du gizarteak tratu txarren aurrean?**

Tratu txar egoera batekin apurtzea erabaki duten pertsonak lagundu eta integratzeko gai den gizartea sortu behar dugu, eta ez pertsonok epaitu eta kritikatzeko dituen. Aldi berean, prebentzioaren ildotik egin behar da lan. Azkenik, emakumeak emakume izate hutsagatik jasaten duten terrorismo mota hau ez da inolaz ere onargarria eta euren segurtasuna bermatuko duten neurriak lortzearen alde presioa egin behar dugu.

Emakumeok baliorik ez dugula dirudi. Nola ulertu bestela 1.999. urtetik genero indarkeriaren ondorioz 315 emakume hil izana?

■ **Salatzen diren baino tratu txar gehiago al daude?**

Noski baietz. Argitara ematen diren datuak izeberg-aren punta besterik ez dira. Askok urte luzeetan zehar tratu txarrak jasan ostean erabakitzen dute salatzea, eta salatzen dutena baino sarriago eta larriagoak izan ei dira tratu txarrak.

■ **Zergatik gordetzen dira isilean?**

Arrazoiak antzak dira, baina tratu txarrak jasan dituen pertsona bizitzera heldu den egoerarekin du zerikusia, edozein indarkeria motak pertsona iraindu egiten baitu; autoestimu baxua, isolamendu soziala... Egoera beltz honekin amaitzen lagun diezaioketen baliabideak ezagutzeko aukerak murrizten dira. Gainera, orokorrean amodioa eta minaren arteko anbiguotasun sentsazioa nagusitzen da.

Honen eraginez, kosta egiten da bakardadeari, lotsari eta famili porrotari aurre egitea. Hau da, gizarteak barneratu dizkigun balore askori, guztiaren ondorioz, emakumea bereak zituen espazioak galtzen hasten da eta tratu txarren zirkulutik ihes egiteko aukerak murrizten dira.

■ **Noiz da laguntzeko unerik egokiena?**

Indarkeriaren zikloa ezagutzea oso garrantzitsua da. Lesioak gertatu eta berehala laguntzen ez bada, biktimak barkamenarena fasean sartzen baita. Erasotzaileak maite duela eta dena aldatuko dela sinistazaziko dio. Biktimak, berriz, dena aldatuko den esperantza dauka.

■ **Zergatik sentitzen dira errudun tratu txarrak jasan dituzten emakume asko?**

Emakumeak sufrimenduan heziak izan gara: eutsi, zerbitzatu eta familiarentzat bizi... Emakumeak barneratuta dauka gizarte honetan antzeztea tokatu zaion papera. Hainbestearino, non bikoteak bera erasotzeko emandako azalpenak sinisteko gai den. Gizarteak zorrotz eta sarritan epaitzen ditu emakumeak egin beharko gure keena ez egitearren, baina barru-barruan eta aspalditik barneratutako gauza asko arrastaka daramatzagu oraindik.

■ **Nondik dator errudun izatearen konplexu hori?**

Gizarte antolamendua patriarkala izan da zibilizazioaren hastapenetatik eta hau gizonek emakumeekiko duten boterean edo mendetasunean oinarritu da. Orokorrean guztiz barneratutako ideia da, sexu bakoitzarentzako "rol" ezberdinak baitaude ezarriak. Hauetan, gizonezkoen rola betidanik izan dira garrantzitsuagoak eta ugaria-goak. Indarkeria, emakumeak beraien roletik atera ez zitezen tresna gisa erabili izan dute gizonezkoek.

■ **Zer egin daiteke tratu txarrak gutxitzeko?**

Gaur egungo gizarte patriarkal eta kapitalistaren egiturazko indarkeriarekin amaitu eta errespetuan eta berdintasunean oinarriturako erlazioak ezarri. Lan luze eta gogorra da, guztioi, emakume zein gizonei dagokigun lana baita.

"Gazteen %22ak bikote barruko indarkeria justifikatzen du"

MARIA JESUS ARZUAGA
ELGOIBARKO OSASUN
ZENTROKO SENDAGILEA



GRYPEA

Gripea gaixotasun birikoa da. Sukarra, gorputz osoko ondoeza eta muskuluetakoa mina dira, gripearen sintoma nagusiak. Gripea epidemikoki azaltzen da negu aldean, eta oso erraz kutsatzen da, eztula edo doministiku egitean askatzen diren partikula txikien bidez.

48 ordu inguruko inkubazio baten ostean, buruko min bortitza, 38-40 graduko sukar altua, ondoeza, eztula eta mukiak dira gripearen ezaugarri nagusiak.

Normalean egun batetik zazpita bitartean irauten du gripeak, baina jende gehienak bi edo hiru aste behar izaten ditu eztula eta gorputzeko ondoeza sendatzeko.

Gripearen kontrako tratamantuan, atsedena, likidoak edatea eta sukarra gutxituko duen medikamentuak hartzea gomendatzen da. Antibiotikorik ez da gomendatzen. Sendatze prozesua egokia izaten da kasu gehienetan, eta konplikaziorik gertatu ezean, ez da beste medikamenturik hartzea gomendatzen.



Maria Jesus Arzuaga
Elgoibarko Osasun Zentroko sendagilea

Osasunari buruzko kezka bat argitu nahi baduzu,
deitu **BARRE**neko 943 74 41 12ra



MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda

(Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiotika, yoga)

San Bartolome, 25 • Tel: 943 74 40 31

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Surya Belardenda

(Zure osasunerako erremedio naturalak)

San Frantzisko, 23 • Tel: 943 74 25 34

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

OPTIKAK

Ikus Optiko-optometrista

San Bartolome, 10 • Tel: 943 74 37 34

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri

(optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21 • Tel: 943 74 03 59

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12 • Tel: 943 74 35 62

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

PODOLOGOAK

Iñaki Rivero

San Bartolome, 28 • Tel: 943 74 32 90

Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

Oinberri

Errosario kalea, 25 • Tel: 943 74 17 95

Astearte-ostiraletan: 9:00-13:30 / 15:00-19:30

Larunbatetan: 10:00-13:00

Udalak komertzio txikiak indartzeko proiektua jarriko du martxan

20.634 euroko aurrekontua du proiektuak, eta lehiaketa bidez aukeratuko da martxan jarriko duen enpresa

Elgoibarko Udalak Alde Zaharreko komertzio txikiak indarberitzeko proiektua jarriko du martxan. Merkatal Zentro handien sorrerak, erosketa ohiturak aldatzera bultzatu du kontsumitzailea, eta herrietako komertzio txikiek indarra galdu dute.

Guztira 20.634 euroko aurrekontua dauka proiektu honek eta lehiaketa bidez aukeratuko da proiektua gauzatuko duen enpresa. Aukeraketa egin ostean, enpresak 6 hilabeteko epea izango du proiektua martxan jartzeko. Enpresa honen lana Elgoibarko Alde Zaharreko komertzio txikien egoeraren azterketa egitea izango



Alde Zaharrak berreskuratzea

Proiektu berri hau Eusko Jaurlaritzak herri desberdinetako Alde Zaharrak indarberitzeko martxan jarritako planaren barnean gauzatuko da. Helburua, merkatal zentro handiei aurre egin, eta komertzio txikiak berreskuratzea da. Herri barruan kotxez ibiltzeko arazo larriak daude, aparkatzeko toki falta herri guztietan nabari da, eta kontsumitzaileak zentro handietara jotzen du erosketak egitera.

da. Honekin batera, kontsumitzaileak ere aztertuko dira. Proiektu honen barnean, Santa Ana, Errosario, San Bartolome eta San Frantzisko kaleetako dendak aztertzea aurreikusten da.

Elgoibarko Udalak aintzat hartu du Eusko Jaurlaritzaren ekimena, eta aurrerantzean, herriko Alde Zaharra indarberitzeko ahalegina egingo du.

Elkartasun dendaren irekiera

Parrokiko Misio Taldeak Elkartasun Denda irekiko du abenduaren 1ean, astelehenean, Coprodeli eta Karitas elkarteekin elkarlanean. Urtarrilaren 5era bitartean, egongo da zabalik denda, Odria familiak Errosario kaleko 12 zenbakian laga dien lokalean. Bertan, kakaoa, kafea, artisau lanak eta beste hainbat gauza izango dira salgai.

Elkartasun dendei esker hirugarren munduko produktoreei prezio duinak ordaintzea lortzen da eta bide batez, produktu hauek ekoizten dituzten lurraldeetan beharrezko proiektuak diruz laguntzen dira. Dendaren ordutegia: lanegunetan 10:00etatik 13:00etara eta 17:30etatik 20:00etara. Larunbatetan 10:30etatik 13:00etara.

Sigma eta Pilarreko zubietako obrak amaitzean daude



Bukatzean daude dagoeneko, Sigma eta Pilarreko zubietako obrak. Oraindik detaile batzuk falta diren arren, joan zen ostiralean, hilaren 21ean ireki zuten Sigmako zubi. Behar handia zegoen, izan ere, trafiko arazo larriak sortzen baitziren, eta Udaleko Hirigintza Saitetik esan digutenez, ezin izan dute erabat amaitu arte itxaron.

Sigmako zubi berriak 2,75 metroko hiru karril ditu eta, alboetan, oinezkoentzako bi metroko bi espaloi. Zubi berri horretan segurtasuneko elementuak ere jarri dira; besteak beste, eskubanda horizontalak eta

metalezko pilastrak dituen altzairu herdoilezinezko baranda bat.

Bestalde, Pilar ikastetxetik azoka plazaraino doan oinezkoentzako pasabidea ia bukatuta dago, eta zubi zaharra aurki botako dute. Zubi berriak bi metroko zabalera dauka, eta oinezkoentzako bakarrik izango da.

Aipatu behar da, Deba ibaiako uholdeen aurkako proiektuaren baitan kokatzen direla bi jarduera horiek. Honekin batera, "Arrantzaleen Pasealekua" izango denaren lehenengo obrak hasi dira.

Josu Lariz preso elgoibartarraren askatasuna aldarrikatzeko mobilizazioak



150 lagun inguruk hartu zuten parte joan zen larunbatean, hilaren 22an, Josu Lariz preso elgoibartarraren askatasuna eta Argentinako gobernuak estradita ez dezan, aldarrikatzeko egin zen manifestaldian. 1992an eta 2002an, Josu Larizek bi estradizio prozesu jasan zituen, baina Uruguaiako epaileak ez zuen onartu Gobernu espainiarraren eskakizuna. Gaur egun, Buenos Airesen (Argentinan) dago preso. Urtebete darama bertan, eta Espainiako Gobernuak bere estradizioa eskatu du berriro ere.

Manifestaldiaren ostean, Uruguaiako telebista batek Josu Larizi egindako elkarrizketa bat eskaini zuten Madalan. Larizek berak, prozesu honi buruz duen iritzia eskaini eta bere egungo egoera azaltzen zituen bertan.

Bestalde, Inazio Iriondo euskal preso politikoak, 19 urte bete zituen atzo, hilaren 27an. Legediaren arabera, kartzelan egon beharreko 3/4ak pasa ditu, Mikel Alberdi eta Iñaki Jaio bezalaxe eta libre egon beharko luke dagoeneko.

Merkatu Plazako dendariak 60 euroko 4 sari banatu dituzte

Hilabete honetan 60 euroko 4 sari banatu dituzte Merkatu Plazako dendariak. Maria Teresa Uria, Maria Jose Zubiaurre, eta Trini Urkizu izan dira irabazleak. Saria erosketa txeketan jaso dute, eta Merkatu Plazako postuetan gastatu beharko dute. Datorren hilabetean, bi afari zozketatuko dira.



Debegesak eta Euskadiko Kutxak "Gazte enpresa" akordioa sinatu dute

Debabarrean proiektu enpresarial berriak bultzatzeko asmoz, Debegesak akordio berri bat sinatu du Euskadiko Kutxarekin. Sinadura honi esker, Debegesak Debabarrenan sortzen diren enpresa berriei laguntza eskainiko die, eta enpresa hauek, sinaduran akordatutako finantzaketa pribilegiatuaz baliatuko dira.

Debegesak ibilbide luzea darama enpresa berrien aholkularitzaren munduan. Sinadura honekin, Debegesak berak dituen aholkularitza laguntzek eta Euskadiko Kutxak eskaini ditzakeen laguntzek bat egingo dute. Debegesak, enplegu edota enpresa asmo berriak dituzten pertsona guztiei eskua zabaldu nahi die, era horretan eskualderako balore handia duten ekintza berriak martxan jarritz.

8,7 kiloko lupia harrapatu zuen Igor Martinezek Deban

Igor Martinez elgoibartarrak 8,7 kiloko lupia harrapatu zuen joan zen asteburuan Deba ibaian. Askotan joaten da Igor arrantzara, baina oraingoan sekulako sorpresa hartu zuen. Bere kañan arrain batek amua irentsi zuela igarri zuenetik, ordu erdi inguru behar izan zuen harrapatutako lupia ur ertzera eramateko. Pisatu zuenean, 8,7 kilokoa zela konturatu zen.



AITOR

EUSKARA ERREFORTZUETARAKO

ESKATZEN DA:

- . 18 urte edo gehiago izatea. Elgoibartarra izatea
- . Ikaslea izan edota arratsaldeak libre edukitzea
- . Ahozko euskara maila ona
- . Komunikazio gaitasuna
- . Haur eta gaztetxoekin lan egiteko gogoia (esperientzia baloratuko da)

BEGIRALEAK BEHAR DIRA

ESKAINITZEN DA:

- . Proiektu berri bateko partaide izatea
- . Ordaindutako lana izango da

Interesatuok ekarri edo bidali zuen kurrikuluma Elgoibarko Izzarara abenduak 15a baino lehen. Informazio gehiago nahi izan ezkerro deitu 943 74 16 26 (Nerea Larraæaga)
E-posta: nerea.larra@elgoibarkoizarra.com

Azaroaren 25ean izan zen Genero Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna IKUSTEN AL DIOZU SOLUZIORIK GENERO INDARKERIARI?



ELISA CID

77 urte, etxeandrea

Arazo honetan Poliziak hartu beharko luke parte. Legeak gogortu, eta merezi duen jendea zigortu egin behar da. Emakumeak fisikoki ahulagoak gara, ezin gara defenditu.

IDOIA ALONSO

37 urte, kamareroa

Hiltzaileak bizitza guztirako kartzelan sartzen ez badituzte, ez da konponduko. Kalera irtendakoan berriz erasotzen dute, eta zigorrak bete egin behar dira.



EULOGIO MANCEBO

40 urte, udaltzaina

Oso zaila da. Kultura arazoa da, ez dut emakume bat bera ere ezagutzen goi mailako ikasketak izan, eta tratatu txarrak jasan dituenik. Hezkuntza hobetu behar da.

LUCIA MOLINA

33 urte, etxeandrea

Ez da konponduko. Hiltzaileak, gutxienez, 10 urtez egon beharko lukete kartzelan. Animaliak erasotzen dituzten pertsonak ere, zigor berdina merezi dute.



FRANCISCO CONDE

38 urte, mekanikoa

Irtenbidea badauka, baina ez da erraza. Zigorrak gogortu, eta bete. Gizartea berriro hezi behar da, azkenaldian balore asko galdu egin baitira, eta emakumea oso inportantea da.

ANA FERNANDEZ


44 urte, industrialia

Konponbide zaila dauka. Ez dut ulertzen, drogekin oso lotuta egon behar du. Umeei txikitatik erakutsi behar zaie. Generazio berriekin egoera hobetuko dela espero dut.



ESKERTZA

2003ko azaroaren 26an, 30 urte zituela hil zen Elizakoak eta Aita Santuaren bedeinkapena hartu ondoren, **LOREA ETXABE AZKUERE**n ama, anai-arreba, iloba eta gainerako sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Kili BARREN

IX. Kontsezio Azoka izango da hurrengo larunbatean, abenduaren 6an

Aurten herriko enparantzan egongo dira postuak



Abenduak 6an ospatuko da Kontsezio Azoka, eta urtero bezala bakoitzak landutako produktuen erakusketa eta salmenta izango da; nekazaritza ekologikoa, barazkiak, fruituak, eztiak, euskal pastela, gazta... Mendaroko Lasalde baserriaren produktuak izango dira beste 13 posturekin batera. Berezitasun bezala postu bat egongo da Mendaroko bizkotxoarekin. IN LEIKE taldeak egutegiak izango ditu salgai bere postuan eta baita kupel bat sagardoarekin. Artisautza eta ganadua (Etxeberria plazan) ikusgai egongo dira. Sariketarako produktuen kalitatea, kopurua eta aurkezteko era hartuko dira kontuan, posturik onenak, 150 euroko sari berezia jasoko duenari.

EGITARAU

09:30etan IX. Kontsezio azokaren hasiera. Jarraian, epaimahaikedeak azokatik igaroko dira. Kalejira trikitilariekin.

11:00etan Dantza saioa MENDAROKO TRIKITIXA TALDEaren eskutik, Gozati pilotalekuan. Ondoren Bertso saioa Amaia Agirre eta Jokin Solozabalekin

11:30etan Ernesto Ezpeleta BIHURRI aizkolariaren saioa: 3 metro t-erdiko egurra mozteko saiakera egingo du Gozati pilotalekuan

13:30etan Azokako postu onenaren sari banaketa Gozati pilotalekuan

14:00etan Azokaren bukaera

15:00etan Babarrun jana LUZAIDE JATEXEAN, bertsolari eta trikitilariek alaitua
18:00etan Erromeria Gozati pilotalekuan Trikitilariekin

Goiz guztian zehar trikitilariek Mendaroko kaleak alaituko dituzte.

Iker Mayorak 35. postua lortu zuen Donostiako maratoian

Iker Mayorak 35. postua lortu zuen igandean ospatu zen Donostiako Maratoian, 2:38:12-ko denborarekin. 6 urte daramatza korrikan eta azkeneko 2 hilabete hauetan entrenamenduak nahiko serio hartu dituela aitortu digu. Euria egin zuen arren bera gustora aritu zen 29. kilometrora heldu bitartean, baina 29-36 kilometroak benetan luzeak egin zitzaizkiola esan digu. Proba moduan hartu zuen maratoia eta udaberrian beste maratoi batean parte hartzeari ez dio ezetz esaten. Behobia-Donostian ez zuen parte hartu Donostiako maratoirako indar guztiekin egon nahi zuelako. Bere lehenengo maratoia izateko izugarritzko denbora lortu duela ezin da zalantzan jarri.



Babarrun janerako txartelak salgai daude

Mendaroko Udalak babarrun jana antolatu du bertsolariekin Kontsezio Azoka egunerako, Mendaroko Luzaide jatetxean. Eguerdiko 15:00etan izango da bazkaria eta prezioa 20 eurokoa da. Menua: babarrunak saiheskiarekin, odolkiaren edo azarekin aukeran. Postrea gazta eta intxaurrekin. Txartela aurrez hartu beharko da, abenduaren 2a baino lehen, udalean edo tabernetan.

Gabonetako Ipuin Lehiaketa

Aurten ere Mendaroko Udalak Gabonetako Ipuin Lehiaketa antolatu du. Hauek dira parte hartu ahal izateko oinarriak: Lehiakide bakoitzak lan bakarra aurkez dezake. Euskaraz idatziak egon behar dute, saririk jaso gabeak, argitara eman gabeak eta gai librekoak. Lanak eskutan edo postaz jasoko dira helbide honetan abenduak 10era arte: Mendaroko Udala (Kultur Saila) Herriko Enparantza 1.zkia. 20850 Mendaro. Sari banaketa abenduaren 24an, goizeko 12:00etan izango da Udaleko Udaltzako aretoan. Argibide eta informazio gehiago Mendaroko Udalean jaso dezakezue, kultura@mendaro.net e-postan edo 943033282 telefonoan.

Azalpen publikoak eta foroak hasi ziren atzo bilkuretan

Hauteskunde kanpainen esan bezala, Udalak bere informazio sistema hobetu nahi du, bai Udaletik herritarrenganako eta baita herritarrengandik Udalerakoa. Horregatik, atzoko udal plenoa aprobetxatu nahi izan zuten, inizatiba berri hau martxan jartzeko. Plenoaren eguneko aztergaia amaitu eta gero, hilero gai bat plazaratuko dute eta gai horren inguruko azalpena eman ondoren, gerturatutakoek bere iritzia eman ahal izango dute. Atzo esperientzia berri honekin hasteko, AIU O6 Linazasoroko etxebizitzaren inguruan dauden berriak jakinarazi zituzten eta bertara hurbildu zirenek udalarekin zuzeneko harremana izan



Kilibarren

Mendaroko Udalaren dirulaguntzarekin argitaratua

IN LEIKEREN

5 URTE

5 urte bete dira IN LEIKE taldeak bere lehenengo urratsak eman zituenetik. Hamaika kultur ekintza antolatu ditu 5 urte hauetan eta GURUZPE talde kulturalaren desagertzeak sortu zuen hutsune kulturala bete duela ezin dugu zalantzan jarri. Euskaltegiaren sorrera, mendi-irteerak, bertso afariak, udalekuak, diapositiba emanaldiak antolatu ditu beste ekintza askoren artean. Horregatik IN LEIKE osatzen dutenen lana goraiatzea ez legoke gaizki eta aldi berean 5 urte hauetan Mendaroko herritarrei eskainitako zerbitzuagatik zoriondu behar zaie.



Interes berdintsuak zituzten gazte batzuk elkartzeko orain dela 5 urte Mendaron. 3 urte inguru izango ziren GURUZPE talde kulturala desagertu zenean eta herria talde berri baten beharrez zegoen kultur ekintzak antolatzeko. Bilera batzuk egin ondoren IN LEIKE taldea sortu zen. Guruzpek aurrez hitzartutako betebeharrak batzuk zituen bitartean, sortu berria zen elkarteak, benetan egin nahi zituzten ekintzak antolatzera mugatu nahi zuen. Hau da, gogoko zituzten ekintzak an-

tolatzen saiatu ziren, gazteen aisialdia osatzen hain zuzen ere.

Elkarteak udalaren dirulaguntzarekin egin du aurrera, baita hainbat ekintzetan ateratako diruarekin, bertso afari edo kilometroetara joateko autobusekin besteak beste.

In leikeren barruan bi talde desberdintzen dira. Alde batetik euskara taldea, eta bestetik, mendi taldea. Hala ere, talde hauekin zerikusirik ez duten ekintza asko antolatu dituzte, tailerrak esate baterako.

Herriaren partaidetza handia izan da orokorrean, baina arrakasta

UDALEKUAK

3-4 urte dira In Leikek zerbitzu hau eskaintzen duenetik. Bai udan eta baita gabon aldean antolatzen dira, izugarrizko arrakasta izan dutelarik gaztetxoaren artean.



MENDI IRTEERAK

Eskiatzera joateko irteeretan autobusa beteta joaten da. Bestalde, mendi martxetara eta asteburuetako irteeretara 20-25 lagun inguru animatzen dira. Hala ere, egun bateko irteerak ez dute horrenbeste arrakasta.

URRENA

Aipatzekoa da In Leike sortu zuen talde berdinak jarraitzen duela 5 urte beranduago, hori dela eta, jende berria animatzea beharrezkoa da elkarrekin aurrera jarrai dezan, izan ere, aire berriak beti dira onuragarriak lanerako.

Taldea osatzen dutenek esan digutenez, herritarrek beraien ekintza kulturalak eskertzen dituzte eta In Leikeren lana ondo ikusita dago.

Talde giroa benetan ona dela aitortu digute taldeki-deek eta bileretako denbora ondo aprobetxatzeak ekarri omen du taldearen jarraipena. Hasierako helburuak betetzen ari dira eta datorren urteari begira ekintza oso interesgarriak prestatzen ari direla esan digute. Ziur 5 urte hauek taldearen hasiera besterik ez izatea.

Azoka egunean, In Leikek urtero bezala postu bat izango du. Bertan, taldearen 5.urteurrena ospatzeko egin diren egutegiak egongo dira salgai eta sagardoa kupeletik edateko aukera izango da. Gerturako zaitezte beraz In Leikeren postura! Eta taldean sartzeko asmotan bazabiltza ziur gogoz eskertuko dizuela.



Zorionik beroenak beraz IN LEIKE osatzen dutenei 5 urte hauetan egindako lanagatik, baita Mendaroko herritarrei beraiek antolaturiko ekintzetan parte hartzeagatik.

gehien izan duten ekintzak ondorengoak izan dira:

KULTUR EKINTZAK

Jendeak erantzuten du antolaturiko ekintza gustukoa bada. Adibide gisa, "Munduari bira txirinduz" diapositiba emanaldian udaletxeko aretoa osorik bete zen Eneko Etxebarrietaren esperientziak entzuteko eta ikusteko. Urtean zehar, besteak beste, Bertso Afaia, Sasikoputzu eguna, antzerkiak, aire libreko zinea, Egunkariaren aldeko krosa, Korrikaren aldeko saltakaldia.. antolatu zituen In Leikek.



EUSKALTEGIA

Aurten 2.urtea da euskaltegia martxan jarri zenetik. 16 pertsonaz osaturiko bi talde daude bertan. Klaseak goizez edo arratsaldean ematen dira astelehen, asteazken eta ostegunetan. Oso garrantzitsua izan da herritarrentzat euskaltegiaren sorrera, euskara ikasteko aukera handia eman baitzaie mendarotarrei.

Erretratu zaharra



Filabete honetako erretratu zaharra **Itxasne Idoeta Txurruka** mendarotarrak ekarri digu. Argazkia 1978an ateratakoa da eta begi bistaz ikus daiteke orain dela 25 urteko jantziak gaur egun ere modan daudela. Begiratu bestela mendarotar hauek dituzten praka barrenak, ziur gaur egun ere horrelako prakak kalean ikusten dituzula. Ikus dezagun zeintzuk diren argazkian ageri diren emakumeak. Goiko ilaran, zutik, ezkerretik eskumara: **Izaskun Jauregi, Ana Jesus Etxeberria, Lurdes Etxeberria, Leonor Barrenas, Rosario Iturria** eta **Mari Jose Larrañaga**. Beheko ilaran makurtuta: **Rosa Zulaika** eta **Amparo Txurruka**.



 **JOSE pin-**
(Txema)

*Mota guztietako pintura
eta enpapelatuak.
Zoluak, moketak, sintasola,
kortxoak, etab. jartzen dugu.*

San Bartolome, 28-1 ezk Tel: 943 74 12 55 Mobila: 629 44 23

Iriondo TABERNA

Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu
eta asteburuetan 9:00etan

Pedro Muguruza, 2 · Tel: 943 74 00 15



OSASUNA

Anbulatorioa	943 03 26 10
Planning-a	943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak	943 74 03 85
D.Y.A (anbulantzia)	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00
Odol Emailak	943 74 39 36

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	943 74 04 42
PESA (Eibar)	902 10 12 10
Taxi geltokia	943 74 08 98

UDALA

Euskara Zerbitzua	943 74 43 66
Udal Kirol Patronatua	943 74 44 15
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58
Mendaroko Udala	943 75 61 00
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08
Udaletxea	943 74 10 50
Udaltzaingoa	943 74 13 94

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Kiroldegia	943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa	943 74 30 88
Liburutegia	943 74 35 25
Musika Eskola	943 74 21 45
Mintxeta	943 74 43 15
Parrokia	943 74 08 42
Postetxea	943 74 15 47
Gaztetxea	943 74 35 72
Gazte Informazioa	943 74 14 61

ADINEKOEN ETXEA

San Lazaro Egoitza	943 74 02 96
Zaharren Biltokia	943 74 05 26
Eguneko Zentroa	943 74 45 65

IKASTETXEA

Haur Eskola	943 74 21 41
HHI (EPA)	943 74 08 80
Herri Eskola	943 74 08 79
I.M.H.	943 74 41 32
Institutua	
Arreiturre	943 74 80 19
Ezenarro (Meka)	943 74 80 19
Ikastola	943 74 44 41
Pilar Ikastetxea	943 74 13 31

Farmazia - okindegia

EGUNEZ

28	Bidasolo
29	Etxeberria (Santa Ana kalean)
30	Etxeberria (Santa Ana kalean)
1	Fernandez
2	Yudego
3	Zabaleta
4	Etxeberria (Errosario kalean)
5	Ibañez

GAUEZ

Bidasolo
Etxeberria
Etxeberria
Fernandez
Yudego
Zabaleta
Etxeberria
Ibañez

FARMAZIAK

ESCALA, Rekalde, 1 Soraluze.

Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ,

Herriko enparantza 4,
Garagarza.

Tel: 943 75 61 42

ZABALETA, Kalebarren, 9 Soraluze.

Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA

EuskoTre

DONOSTIA-BILBO

Egunero

Donostia AMARA 5.45 06.45... 20.45

Elgoibar 07.02 08.02... 22.02

* jaiegunetan 7.45ean hasiko dira

MENDARO-ELGOIBAR

Egunero

Mendaro 07.50 08.50... 21.50

EuskoTre

AUTOBUSAK

BILBO-DONOSTIA

Egunero

Bilbo 06:00 7.00... 20.00

Elgoibar 07.23 08.23... 21.23

* jaiegunetan 8.00etan hasiko dira

ELGOIBAR-MENDARO

Astegunetan

Elgoibar 07.25 08.25 10.25... 21.25

Jaiegunetan

Elgoibar 08.25 09.25 10.25... 21.25




karkizano

San Frantzisko, 14 - Tel. 943 74 05 49



San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49



PINTURAK

PEDRO PEREZ BERISTAIN

Xixilion, 2 · 3.sotoa ☎ 943 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

Eskola Kirola egiten duten ikasleen gurasoak sentsibilizatzeko kanpaina jarri dute martxan

Udaleko Euskara Sailak eta Kirol Patronatuak, *Kirola Euskaraz* egitasmoaren barruan, Eskola Kirola egiten duten ikasleen gurasoak sentsibilizatzeko diptikoa argitaratu dute. Material honen helburua Eskola Kirola hobetzen laguntzea da. Gurasoek haurren heziketan zeregin garrantzitsua duten bezala, kirol heziketan ere zeregin garrantzitsua daukate, kirolaren bidez pertsonarentzat oinarrizkoak diren hainbat jokaera lantzen direlako. Haurra kirolaren bidez ere heziko da,



baita Eskola Kirolaren bidez ere, pertsonaren garapenean oinarrizkoak diren jokaerak lantzea lortu behar da.

Gurasoak gai honetaz sentsibilizatzeko material berezia prestatu dute Udalak eta Kirol Patronatuak. Diptikoarekin batera, gurasoek 3 fitxa berezi jasoko dituzte. Fitxa horietan, ondorengo gaiak landuko dira: Eskola Kirolaren nondik-norakoa, gurasoen jokabidea, neurri higienikoak, elikadura, entrenatzaileen prestakuntza eta Eskola Kirolean euskararen erabilera.

ESKOLA KIROLA AGENDA

Azaroak 29, 5. Jardunaldia

ESKUBALOIA, Kiroldegian

■ Benjaminak ■

9:00 Ikastola D - Pilar B

9:35 Ikastola C - Pilar A

10:10 Ikastola A - Pilar C

10:45 Ikastola B - Herri Eskola A

11:20 Herri Eskola B - Mendaro A

11:55 Herri Eskola C - Mendaro B

FUTBOLA, Mintxetan

■ Infantil mutilak ■

10:30 Ikastola A - Ikastola B

10:30 BHI B - Pilar A

11:15 BHI A - Pilar B

■ Infantil neskak ■

11:15 BHI A - Ikastola A

12:00 Pilar A - Pilar B

SASKIBALOIA, Herri Eskolan

■ Alebin mutilak ■

9:00 Ikastola B - Herri Eskola A

9:45 Mendaro A - Ikastola A

10:30 Pilar A - Pilar B

■ Alebin neskak ■

11:15 Herri Eskola A - Ikastola A

12:00 Pilar A - Pilar B

Txileko zuzendariak Helduen Hezkuntzari buruzko ikastaroa amaitu dute

Txileko herrialde desberdinetako 21 zuzendarik “Lan munduko Helduen Hezkuntza” ikastaroa burutu dute IMHn, eta joan zen azaroaren 21ean ikastaroaren amaiera ekitaldia ospatu zuten. Joxean Egañak (IMHko zuzendaria), eta Contes-eko presidentek, Iosune Berasategi ikastaroaren koordinatzailearekin batera, taldea zoriondu eta ziurtagiriak banatu zituen.

Fernando Enhorambuena, Txileko Hezkuntza Ministerioaren ordezkariak bere erakundearen helburua gogoratu zuen, eta

Mabel Elsa Ortiz de Zarate, ikasleen bozeramaleak, hitz hunkigarriak erabili zituen ikastaroan izandako esperientziak adierazteko.



Ikastolako ikasleek Barren bisitatu zuten




Ikastolako 11 urteko ikasleek, Barren bisitatu zuten joan zen ostiralean, azaroaren 21ean. Gure aldizkariaren funtzionamendua ezagutzeko asmoz etorri ziren, eta gure zuzendariak eman zizkien azalpen guztiak. Ondoren, hainbat galdera erantzun genituen, beraien zalantzak argitzeko, eta astero-astero Barren nola egiten den kontatu genien. Gure lana asko gustatu zitzaion, eta batzuk kazetari izateko asmoa zeukatela esan zuten.

Jasone Osorok "Greta" izeneko liburua kaleratu du

Greta izeneko maniki baten istorioa nobelatu du

Tentazioak eta Korapiloak ipuin-bildumen ondoren, nobelari ekin dio Jasone Osorok oraingoan, eta *Greta* izeneko hirugarren liburua kaleratu du. Greta liburuko pertsonaia inportanteenetakoa da, baina ez da pertsona, maniki bat da, urtetan arropa-denda bateko eskaparatean egondakoa, eta orain Oskarrek, liburuko protagonistak, bere etxean gordetzen eta zaintzen duena. Goxotasunezko harreman berezia du Oskarrek Gretarekiko beregan, txikitan galdu zuen amaren nolabaiteko ordezkotza bilatuko balu bezala. Oskar, ordea, bere betiko andregai izan duen Anarekin ezkontzeaz dago. Anak ulertzen du Oskarrek Gretarengan sentitzen duena, baina halako batean gehiegizkoa iruditu eta bien arteko aukeraketa egitera behartuko du Oskar.

Jasone Osorok berak kontatu digunez, duela hiru urte inguru Joaquin Sabina abeslariari egindako elkarrizketa batean oinarritu da liburua idazteko: "Joaquin Sabinak etxean hiru edo lau maniki zituela irakurri nuen elkarrizketa batean, eta atentzioa eman zidan. Pertsonak baino konpainia hobea zirela aipatzen zuen, eta



handik sortu zitzaidan ideia".

Urte eta erdi inguru eman du Jasone Osorok *Greta* idazten, baina honetaz aparte, gauza asko egin ditu neska algoibartar honek. Zortetik onena opa diogu bere hirugarren liburuarekin.


"Fantasias Folclóricas" txotxongilo ikuskizuna Herriko Antzokian

"Varna Puppet Theatre" talde bulgariarraren eskutik, "Fantasias Folclóricas" txotxongilo ikuskizuna izango da datorren igandean, azaroaren 30ean, Herriko Antzokian. Imaginazioz eta fantasiaz beteriko ikuskizun koloretsua izango da. Bulgariako txotxongiloekin, nekazal munduko istorioa kontatuko dute. Bulgariako etnografia eta fantasian hegan egiteko aukera izango da. Arratsaldeko 16:30ean hasita, ordu beteko ikuskizuna eskainiko dute.




ESKERTZA

2003ko azaroaren 23an, 48 urte zituela hil zen Elizakoak eta Aita Santuaren bedeinkapena hartu ondoren, **JULIAN ZUBIAURRE CELAYA**ren emazte, seme-alaba eta gainerako sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

2003ko azaroaren 20an, 95 urte zituela hil zen Elizakoak eta Aita Santuaren bedeinkapena hartu ondoren, **EULOGIA ARZUAGA ANDUAGA**ren sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Txomin Rogel txapeldun eta David Conde txapeldunorde Euskadiko Ehiza Xeheko Txapelketan

Espainiako Ehiza Txapelketan parte hartuko dute bi elgoibartarrek abenduaren

Herriko ehiztariak fin dabilta azken aldian. Afizio handia dago eta badirudi maila ere parekoa dela. Azaroaren 23an Zanbranan (Araba) jokatu zen Euskadiko Ehiza Xeheko Txapelketaren azken sailkapena ikusi besterik ez dago, lehen bi postuak elgoibartarrentzat izan baitziren. Txomin Rogelek jantzi zuen txapela, "Abba" txakurraren laguntzaz 8 eper bota baitzituen. David Conde sailkatu zen bigarren postuan 6 eper bota ostean. Hirugarren postuan Arabako ehiztari bat sailkatu zen bost eper botata. Aipatzekoa da Txomin Rogelek antolakuntzaren gonbidapen bati esker hartu zuela parte txapelketan, baina euskadiko 30 ehiztaririk onenak gainditzeko gai izan zen. Gainera, sukarrak gogor baten erruz aste erdia ohean pasa ostean lortu zuen garaipena. David Condek, berriz, Gipuzkoako txapelketan lortutako 2. postuari ezker



Txomin Rogel eta "Abba" Euskadiko Txapelketan lortutako txapelarekin.

lortu zuen Zanbranan egoteko txartela eta ohiko erregulartasuna erakutsi zuen.

Espainiako txapelketa

La Union Ehiza eta Arrantza Elkarteko bi ehiztariak Espainiako Txapelketako finalaurrekorako sailkapena lortu dute. Lau finalerdi jokatu dira Espainiako leku ezberdinetan, eta elgoibartarrek Soriako Castillejo de Robledo herrira joan beharko dute abenduaren 6an. Rogelentzat ez da horrelako txapelketa batean parte hartzen duen lehen aldia izango, 2.000. urtean bigarren postuan sailkatu baitzen eta Ehiza xeheko Espainiako Txapelketaren finalerako sailkatu zen. Conderentzat horren hurrun iristen den estreinako aldia izango da, baina ilusiorik eta gogorik ez zaio faltako aurreko asteetan BARREneko orrietan adierazi izan duen moduan.



ANTT CONSULTORIA

INMOBILIARIA

Antonio Arrillaga, 1 behea
Tel.: 943 74 80 92

ERAIKUNTZA BERRIAK

ALTZOLA

* Aukera ezin hobea 20 millioitik aurrera

LEKU - EDER

* Azken Etxebizitzak!!!!

* Lokalak

BARTOLOME ETA FRANTZISKO DEUNA

* 2 logelako etxeak

BIGARREN ESKUKOAK

ETXEBIZITZAK

Santa Ana: 3 logela, egongela, sukaldea, terraza eguskitsua. Sartzeko modua. 169.000 €.

Santa Ana: 3 logela, egongela, sukaldea, igogailua. Sartzeko moduan. 177.298,57 €.

San Antolin: 3 logela, egongela, sukaldea eta bainu-gela. Dena kanpoaldera. 162.273,26 €.

GARAJEAK

Erdialdean: Marraduna. 21.000 €

Marraduna. 24,5 m². 21.000 €

San Roke: Itxia. 15 m². 22.900 €

Marraduna. 25 m². 21.000 €

San Roke: Alokairuan. 54 € / hileko

Urasandi: Itxia. 27m². 33.055,67 €

Urasandi: Lokala. 90 m². 66.000 €

8 elgoibartarrek hartu zuten parte Donostiako maratoian

BARREneko erredakzioak jakin ahal izan duenez 8 Korrikalari inguru ausartu ziren Donostiako maratoiko 42 kilometro eta 195 metroekin, pasa den domekan, azaroaren 30ean. 2.400 atletak eman zuten izena eta 1.854 iritsi ziren helmugara bost orduren azpitik. Peter Korir keniarrak irabazi zuen proba 2:10:46 denborarekin. Gipuzkoarrik bizkorrena, berriz, Asier Cuevas eibartarra izan zen 2:17:34 denborarekin sailkapen nagusiko laugarren postuan sailkatuz. Jose Antonio Ruiz, berriz, elgoibartarrik onena izan zen. Behobia-Donostia maratoi erdian 15 egun lehenago erakutsitako sasoiari eutsi zion elgoibartarrak eta 79. postuan amaitu zuen euripean jokatu zen Donostiako maratoia 2:44:31 denborarekin. Ondoko taulan sailkapen zerrendatik lortu ahal izan ditugun elgoibartarren denborak eta postuak ageri dira.



Elgoibartarren

Abizenak, Izena	Postua	Denbora	Abizenak, Izena	Postua	Denbora
Ruiz Del Rey, Jose Antonio	79	2:44:31	Fernandez Carbayo, J. Manuel	482	3:08:52
Arrieta Vallejo, Asier	196	2:55:12	Altzerreka Etxeberria, Roberto	598	3:13:32
Bergaretxe Olabide, Xabier	372	3:03:44	Agirretxe San Sebastian, Jesus	901	3:25:32
Santamaria Fernandez, Luis	424	3:06:25	Frias Chaves, Francisco	1.800	4:21:15

Elgoibarko Igeriketa Taldeak Oñatin hasi du denboraldia



Oñatik Igerilekuan jokatu zen igeriketa txapelketako lehen jardunaldia pasa den azaroaren 22an. Guztira Elgoibarko Igeriketa Taldeko 11 kidek hartu zuten parte estreinako jardunaldian eta geldirik egon diren denboran igeri egiten ahanzi ez zaiela erakutsi zuten. Alderantziz, entrenamenduetan gogor saiatu direla frogatu zuten lortutako denbora apartak kontutan hartzen baditugu. Bestalde, Igeriketa taldetik adierazi digutenez, klubeko bainujantziak, bai mutilenak eta bai neskenak, salgai daude Olaizaga Kiroldegian. Mutilenak 15 euro balio ditu eta 20 euro neskenak.

Egoitz Mora senior mailako Euskadiko judo txapelidun

Euskadiko titulu bat gehiago eskuratu zuen Egoitz Mora judoka elgoibartarrak Erreterian jokatutako txapelketan. Denbora gutxian lortu duen bigarrena da, izan ere, duela gutxi 23 urtez azpiko txapela jantzi zuen 21 urteko judoka gazteak. Azken titulua, berriz, senior mailan lortu zuen. Aurrerik adina ez zen oztopo izan Egoitzentzat eta arerio guztiak aise asko gainditu zituen. Hurrengo erronka iaz Espainiako Txapelketan lortutako garaipena errepikatzea izango da. Iparraldeko Sektoreko finala Vigon jokatuko da asteburu honetan, azaroaren 28an eta 29an.



EMAITZAK

Futbola

Segura 3 - Pedrusko 0 (1. erreg.)
Tolosa 1 Haundi 0 (Pref.)
Elgoibar 1 Ilintxa 3 (1. erreg.)
Ordizia 2 Elgoibar 1 (Jub.)
Elgoibar 13 Soraluze 0 (Kad.)
Elgoibar 1 Lagun Onak 1 (Inf.)
Elgoibar 0 Urola 3 (Neskak)
Almen 4 Elgoibar 3 (Neskak F-8)

Esku pilota

Gipuzkoako Txapelketa
Txapagain 15 Lagunak 22 (Jub.)
Lagunak B 22 - Beloki 13 (Nag.)
Andazpe 22 Lagunak A 6 (Nag.)

Areto Futbola

Kenci Elg. 6 Altamira Bar Txutxi 3 (Nazional B)
Larramendi 5 - Lanbroa 4 (2. maila)
Virgen de Vico 3 - Magefesa 6 (Jub.)
Lauburu 6 - Lojantzi 3 (Jub.)

AGENDA

Areto Futbola, Kiroldegian

Zapatua, 29
12:30 Lojantzi Larramendi (Jub.)
17:15 Magefesa Tomas Mingot (Jub.)
18:45 Lanbroa Antxeta (2. maila)

Futbola, Mintxetan

Zapatua, 29
16:00 Haundi Zarautz
Domekia, 30
10:30 Elgoibar Antzuola (Neskak F-8)
12:30 Elgoibar Lagun Onak (Neskak)
16:30 Elgoibar Aæorga (Jub.)

Eskubaloia

Domekia, 30
9:45 Tecnomeca - Zarautz (Kad. mut.)
11:00 Pneumax - Zarautz (Jub. mut.)
12:30 Sanlo Elg. - CAF Beasain (Sen.mut.)

Esku pilota

Barixakua, 28
21:15 Lagunak A Bergara (Kad.)
22:00 Lagunak Hernani (Jub.)
22:45 Lagunak A Alorga (Nag.)



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

Durangoaldeko enpresak **metale-rako peoia** behar du.
Erref. 112201/3

Durangoaldeko enpresak **euskarri teknika** behar du.
Erref. 111796/3

Durangoaldeko enpresak **gasolin-degirako langilea** behar du.
Erref. 113852/1

Debabarreneko enpresak **kontrola-dorea** behar du.
Erref. 113103/2

Debabarreneko enpresak **komertziala** behar du.
Erref. 113012/4

Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauek batera deitu: Elgoibarko Institutua (Alberto Iturricastillo) **943 74 80 19** edo IMH (Nora Ramón) **943 74 41 32** telefonora.

Lana

ESKAERA

◆ Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Fijo edo asteburuetan.
☎ **626 91 49 04**

◆ Neska euskalduna igande eta jai egunetan nagusiak edo gaixorak zaintzeko prest.
☎ **616 53 37 96**

◆ Emakumea etxeko lanak edo garbiketara lanak egiteko prest. Egun solteak.
☎ **943 74 22 01**

◆ Neska euskalduna umeak zaintzeko prest.
☎ **943 74 30 56**

◆ Emakumea garbiketara lanak egin, umeak edo nagusiak zaintzeko prest.
☎ **943 75 24 31/600 89 06 41**

ESKAINZA

◆ Mutil gaztea behar da larunbatetan tabernako atean lan egiteko.
☎ **670 25 04 29**

◆ Asteburuetan goxoki denda batetan lan egiteko neska behar da.
☎ **656 73 28 20**

◆ Osintxuko jate txekak, jantokian lan egiteko kamareroa behar du. Asteburuak libre.
☎ **943 76 48 63 (Josebe edo Juana)**

◆ Kamareroa behar da.
☎ **943 74 42 65**

◆ Emakume bat behar da ume bat zaindu eta etxekolanak egiteko. Gaueko Betatik aurrera.
☎ **687 273 171**

Etxebizitzak

◆ Etxea hartuko nuke alokairuan.
☎ **626 91 49 04**

◆ Pisua salgai Basarte kalean. Altzariekin. Oso polita.
☎ **678 62 73 97**

◆ Apartamentuak alokatzen dira Torre del Mar herrian (Malaga). Urte osoan zehar.
☎ **659 26 10 84**

◆ Buardila salgai. Bi logela eta trasteroa.
☎ **630 87 00 54**

◆ Bikote batek pisua hartuko luke alokairuan. Ez dadila oso garestia izan.
☎ **615 72 54 19 (Leire)**

◆ Etxea salgai Santa Ana kalean. 3 logela, egongela, sukalde eta despentsa. Eguzkitsua.
☎ **636 22 31 42**

◆ Pisua salgai Ubitarte Plazan. Dena kanpora begira, eguzkitsua, 62m². Bikote batentzako aproposa. Dena berritua.
☎ **696 74 91 59**

◆ Etxea salgai herri erdian. 3 logela, amueblatua, berritua, bizitzera sartzeko moduan.
☎ **661 42 60 77**

Garajeak

◆ Garajea alokatzen da Santa Ana 2an.
☎ **615 78 78 57**

◆ Garajea alokatzen dut.
☎ **943 74 18 81**

◆ Kiroldegi ondoan bi garaje salgai.
☎ **626 60 71 55**

◆ Pista Beltzean bi garaje salgai. Bata itxia. Bestea irekia, bi kotxe sartzeko modukoa. Merke, aukera bikaina.
☎ **943 74 20 34/639 35 33 31**

◆ Garajea hartuko nuke alokairuan Leku Ederren edo inguruan. Itxia merke, edo marrekin banatutakoa.
☎ **696 89 60 88**

Bestelakoak

◆ Belarritako bat galdu dut Arregitorretik Hartzaindegira bitartean.
☎ **943 74 37 75**

◆ Kanarioak ihes egin digu etiketik. Hilaren 18tik dago desagertuta. Txuria da.
☎ **626 38 54 53**

◆ Katu persa oparitzen dut. 3 urte ditu.
☎ **636 52 38 03**

OHARRA:

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

Salerosketak

◆ Newpool markako labadora salgai. 10 hilabetekoa. Garantian dago.
☎ **943 74 22 01**

◆ Seat Toledo 2000i. salgai. 250.000 pza.
☎ **656 78 98 82**

◆ Opel Corsa 1.2 autoa salgai. 3 ate, beltza. SS-5560-AF
☎ **943 74 07 12**

◆ Harategiko barrak (alitzairu inoxidablea) eta trangadera salgai.
☎ **943 74 01 22**

◆ Chrysler voyager 2.5 Lx CRd salgai. 2001ekoa. 33.261 km.
☎ **943 74 34 00**

◆ Honda Shadonn motorra salgai. 600cc. Prezio onean.
☎ **635 72 00 91**

◆ Opel Kadett 1.800i GT. salgai. Oso merke. 660 euro.
☎ **635 72 00 91**

◆ Bi eskopeta salgai. Paraleloak. Bata usotarako eta bestea oilagorretarako.
☎ **943 74 00 79**

◆ Audi 100 autoa salgai. Diesela. 900 euro.
☎ **94 620 39 45**

◆ Citroen ZX 1.6i, 90 zaldi, salgai. 6 urte. Airbag, irratikasettea, ispilu elektrikoak, kristal beltzak, Saxoaren llantak, selex amortiguadoreak...
☎ **659 554 564**

◆ Caritasek butano-berogailua eta jangelarako mahaia behar ditu.
☎ **943 74 15 09**

◆ Volkswagen Caddy, 1900 TDI autoa salgai. 130.000 km.
☎ **670 23 52 54**

◆ Setter ingeles arrazako txakurra salgai. Oso modu onean.
☎ **943 03 35 03**

◆ 90eko bi ohe berri salgai. Berri berriak, armairu eta mesillekin. Santa Ana 22an.
☎ **943 74 24 57 (eguerdian edo iluntzean deitu)**

Partikularrak

◆ Euskarazko klaseak emateko irakasle partikularra behar da.
☎ **696 96 40 69**

Agurrak



♦ Zorionak **Asierri**, azaroaren 24an, bi urte bete zituelako. Ama, aita eta Piporen partez.



♦ Zorionak **Sofia**, atzo 3 urte bete zenituelako. Muxu handi bat Andrea-ren partez.



♦ Zorionak **Ibon**, abenduaren 6an, 5 urte bete-ko dituzulako. Muxu handi bat familiakoen eta bereziki, arreba Naiararen partez.



♦ Zorionak **potxolo!** Dagoeneko urtebete, eta haundien gelara! Bi muxu handi, eta ondo paxa. Ikastolako haurtzaindegiko lagunak.



♦ Zorionak **Urtzi**, azaroaren 29an, 9 urte bete-ko dituzulako. Familiakoen, eta bereziki, Andoniren partez. Aupa Real!



♦ Zorionak **losu**, azaroaren 30ean urteak bete-ko dituzulako. Familiakoen eta bereziki, lehen-gusu Ainhoa eta Yosebaren partez.



♦ Zorionak **Jose Arizabalagari**, azaroaren 25en, 90 urte bete zituelako. Alba eta Nerearen partez.



♦ Zorionak **Yerairi**, igandean bi urtetxo beteko dituelako. Muxu handi bat Elgoibarko familiakoen partez.



♦ Zorionak **Izar Alkorta**, azaroaren 30ean, lehen urtebetetzea egingo duelako. Senide guztien, eta bereziki, Ondarruko eta Elgoibarko aitonen partez.



♦ **Elizburu** etxeko mutilari zorionak! Ondo pasa bihar, eta merienda goxoa prestatu guztiontzat. Muxu handi bat, Eider, Dorleta, Iker eta Borjaren partez.



♦ Zorionak **Irati** eta **Miren**, hilaren 3an eta 26an urteak bete dituzulako. Gurasoen partez.



♦ Zorionak **Teresa** eta **Antoniori**, euren urrezko ezteietan.



♦ Zorionak **Jose** eta **Mariari** euren urrezko ezteietan. Seme alaben partez, egun zoragarria pasat!



♦ Zorionak **Julia**, **Lorena** eta **Juleni** zuen urtebetetzean. Mendaroko lagunaren partez.

♦ Zorionak **Eneko**, hilaren 21ean urteak bete zenituelako. DBHkoen partez.

IKASTAROKA

Interpretazio korala

Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak interpretazio koraleko I. tailerra antolatu du, 17 urtetik gorako adina duten abesbatzetako kide eta zuzendariak zuzenduta. Tailerrak abenduaren 26tik 30era bitarteko iraupena izango du, zuzendari eta irakaslea Jordi Casas izango da eta Donostian egingo den Gabonetako aste koralararen amaierako kontzertuarekin bukatuko da. Epea: abenduak 3

Heziketa berezia

Bizkaiko Urtxintxa Eskolak heziketa bereziko ikastaroa antolatu du, Bilbon, abenduaren 13tik 20ra. Eskolak 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara izango dira. Epea: abenduak 5

Afrikar kultura

Haurralde Fundazioak afrikar errealitatea ezagutzeko ikastaroa antolatu du, afrikar kontinentearen ikuspegi zientifikoa eta akademikoa emateko eta parte-hartzaileak Afrikako errealitate sozio-ekonomikora hurbiltzeko. Ikastaroa hiru modulutan emango da, eurretako lehenengoa abenduaren 11 eta 12an, Donostian. Epea: abenduak 10

LEHIAKETAK

Publizitate iragarkiak

Donostiako Udalak publizitateko iragarkien I. lehiaketa antolatu du, bortizkeria jasaten duten emakumeak sentsibilizatzeko helburua duten iragarkiak saritzeko. Lehiaketara 16 urtetik gorakoek aurkez ditzakete euren lanak, banaka nahiz taldean. Lanak "story board" formatuan aurkeztu behar dira eta iragarkiak 30 segundotik beherako iraupena izan behar dute. 3.600 euroko saria. Epea: abenduak 5

Komikia

Algeciraseko Udalak I. "Ciudad de Algeciras" komiki-lehiaketa antolatu du, 14tik 30 urtera bitarteko adina izanik, profesionalak ez diren gazteentzako. Bertara 4 orrialde edo gutxiagoko luzerako teknika eta gai libreko lan original eta argitaratu gabek aurkez daitezke. 1.050 euro saritan. Epea: abenduak 5

Itzulpena

AED Elkarteak eta Elkar Argitaletxeak XVII. Jokin Zaitegi Itzulpen Saria antolatu dute, 2003ko Novel Literatura Sariaren, John Maxwell Coetzeearen, Disgrace eleberria euskarara itzultzeko helburuarekin. Lehiaketara lan horren lehen sei orrialdeak aurkeztuko dira itzulita. 4.200 euroko sari bakarra. Epea: abenduak 9

LANA

Gizarte eta kultura dinamizatzailea

Bakioko Udalak gizarte eta kultura gaietarako dinamizatzaile plaza bat oposizio-lehiaketa aske bitartez betetzeko deialdia egin du. Baldintzak: unibertsitateko diplomatu titulua edo baliokidea eta euskarako 3. hizkuntza-eskakizuna izatea. Epea: abenduak 9

Arkitekto Teknikoa

Errenteriako Udalak Arkitekto Tekniko bat kontratatzeko oposizio-lehiaketa antolatu du. Baldintzak: Arkitekto Teknikoaren titulua, B1 gidabaimena eta euskarako 3. hizkuntza-eskakizuna izatea. Epea: abenduak 10

Suhiltzaileak

Gipuzkoako Foru Aldundiak 17 suhiltzaile-lanpostu betetzeko oposizio-lehiaketa antolatu du. Baldintzak: Eskola Graduatua, Oinarriko Batxilergo titulua edo baliokidea eta B, B1, C edo C1 motako gidabaimena izatea. Epea: abenduak 11

Hiesaren ASTEAK

AZAROAK 29, zapatua

11:00 Umeentzako puzgarriak eta globo banaketa

Plaza Handian

Atxutxiamaikaren laguntzarekin

Aldi berean, mahai informatiboa eta lazo gorrien banaketa

18:00 Sex-Txokoa King-Kong-en eta kale animazioa (musika eta mozorroak)

Ondoren, informazio banaketa

Errotatxo, Biluzik eta GAZ-T-ren eskutik

AZAROAK 30, domekia

13:00 Hiesaz hildakoei omenaldia

Plaza Handian

Elgoibarko H.D.T. eta Arrasateko

Txalaparta taldeen laguntzarekin

Ondoren, kontzentrazioa

ABENDUAK 1, astelehena

Hiesaren eguna

10:00 Manifestu irakurketa eta bideo emanaldia

11:25 Manifestu irakurketa eta bideo emanaldia

Elgoibar Bigarren Hizkuntzako Institutuan

Goizean zehar, mahai informatiboak herrian zehar

19:00 Haurdun dagoen emakume seropositibo baten istorioa

Biluzik-en stand-a

ABENDUAK 4, eguna

22:15 Zine estreinaldia Ongarri Zine

Klubarekin batera

Sweet Sixteen

29 ZAPATUA

17:00 KINA BEREZIA

Jubilatuena Biltokian

22:00 INAZIO IRIONDO PRESO ELGOIBARTARRAREN ALDEKO KONTZERTUA

Taldeak: "K-104" (elgoibartarrak), "E-Dolls" (eibartarrak) eta "Oliba gorriak" (markinarrak)

Gaztetxean

Sarrera doan



30 DOMEKIA

12:30 ELGOIBARREN HILDAKO JUBILATUEN ALDEKO MEZA

San Bartolome parrokian

Jubilatuena Astea

16:30 "FANTASIAS FOLKLORICAS"

TXOTXONGILO IKUSKIZUNA

Taldea: Varna Puppet Theatre, Bulgariako txotxongilo konpainia

Herriko Antzokian

18:00 DANTZALDIA

GELATXOREKIN

Jubilatuena Biltokian

1 ASTELEHENA

19:00 ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEAREN BATZAR OROKORRA

Kultur Etxeko hitzaldi gelan

3 EGUAZTENA

13:00 ELGOIBARKO NAZIOARTEKO XAKE TXAPELKETAREN AURKEZPENA

Kultur Etxean

Antolatzaileak: Udal Kirol Patronatua eta Euskadiko Xake Federazioa



5 BARIXAKUA

19:00 LUZIANOREN MARGOAK ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA

Kultur Etxeko Erakusketa gelan

Abenduaren 21era arte

ZINE
kluba



"Sweet sixteen"

Zuzendaria: Ken Loach.

Antzezleak: Martin Comptom, Annmarie Fulton, William Ruane.

Langabezia eta gazteen delinkuentzia nagusi diren nerabezeroaren ikusmolde oso errealista sortu du Ken Loach zinegile britainiarrak. Gidoirik onenaren saria jaso zuen Canneseko Zinemaldian aktore amateurrek antzeztutako filmeak. Liam izeneko 16 urteko mutikoa da protagonista. Bere ama gartzelatik aterako da aurki eta Liamek inoiz izan ez duen famili bizimoduarekin egiten du amets. Oraingoan ez du ezerk huts egiterik nahi eta gogor saiatuko da.

BATZARRAK**Elgoibarko Izarra Elkartearen batzarra**

Elgoibarko Izarra Kultur Elkartek bazkideen urteko batzar orokorra ospatuko du abenduaren 1ean, astelehenean, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Gaien ordena, honakoa izango da: Lehendakariaren agurra, azken urteko eboluzioa eta egungo egoeraren diagnosis, etorkizuneko asmoak eta galdera-erantzunen txanda. Batzarra arratsaldeko 19:00etan hasiko da.

IKASTAROKAK**KZ Guneak ikastaroak**

KZ Guneak abenduan ere ikastaroak eskaintzen jarraituko du. Gauzak horrela, "Nagusiweb" ikastaroa izango da abenduaren 1etik 5era bitartean. 50 urtetik gorakoei zuzenduta dago eta ordenagailua eta interneten hasteko 10 orduko ikastaroa izango da.

"Internet KZ Gunea" izeneko ikastaroa, berriz, abenduaren 9an (18:00etatik 20:00etara) hasiko da. 20 orduko iraupena izango du eta abenduaren 22an amaituko da. Besteak beste, interneten hasteko ikastaroa izango da, web orrietan nabigatzea, informazioa bilatzea, posta elektronikoa, bideokonferentziak, e.a. Bestalde, honako mintegiak eskainiko ditu KZ Guneak: "Jarraitu gustuko duzun kirola", abenduaren 2an, 19:00etatik 20:00etara. "Finantza erak" abenduaren 17an, 16:00etatik 18:00etara. "Fagor gida gastronomikoa", abenduaren 23an, 16:00etatik 18:00etara. Asteburu bat Euskal Herrian, abenduaren 26an, 17:00etatik 19:00etara. Azkenik, abenduan ere arratsaldeko ordutegiarekin jarraituko duela KZ Guneak gogoratu, 16:00etatik 20:00etara.

BERTSOAK**Gipuzkoako Bertsolari Txapelketarako autobusa**

Elgoibarko Izarra Kultur Elkartek Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren finalera joateko autobusa antolatu du. Abenduaren 14an, domekan, izango da finala Irungo Artaleku Kiroldegian. Elgoibartik, arratsaldeko 15:00etan irtengo da autobusa Plaza Handitik, finala 17:00etan hasiko baita. Elgoibarko Izarraren lokalean eman behar da izena abenduaren 9a (martitzena) baino lehen. Sarrera eta autobusaren prezioa 22 eurokoa da (20 euro Elgoibarko Izarrako bazkideek). Bertsozale Elkarteko bazkideek eta 16 urtetik beherakoek, berriz, 17 euro ordaindu beharko dituzte. Informazio gehiago honako telefonoan: 943 74 16 26 (Imanol).

IRTEERAK**Astunera eskiatzera**

DBH 1, 2, 3 eta 4. mailako ikasleentzat Astunera eski irteera antolatu du GAZ-T Aisialdi Taldeak. Irteera datorren abenduaren 13an eta 14an izango da, eta izena emateko epea abenduaren 5ean amaituko da. Eskiatzeko eskiak edota snowboard-a alokatu behar dutenek 100 euro ordaindu beharko dituzte, eta material propioa dutenek 80 euro. Bestalde, behar dutenentzat ikastaro txiki bat antolatuko da. Ordainketa Kutxako 2101 0036 65 0124148420 kontu korrantean egin beharko da, eta ordainagiria, izenemate orriarekin batera Elgoibarko Izarra Kultur Elkartean entregatu. Esan digutenez, plazak mugatuak dira, eta matrikulazio ordena errespetatuko da.

**ELGOIBAR, Herriko Antzokian****"Italian Job"**

28, barixakua: 22:15
29, zapatua: 19:30-22:15
30, domekia: 19:30-22:15
1, astelehena: 22:15
"Sweet Sixteen" (Z.K.)
4, eguena: 22.15
"Enigma"
5, barixakua: 22.15

EIBAR, Unzaga**"Al otro lado del mundo"**

28, barixakua: 19:30-22:15
29, zapatua: 17:00-19:30-22:30
30, domekia: 17:00-19:30-22:30
1, astelehena: 19:30-22:15
2, martitzena: 19:30-22:15
3, eguaztena: 19:30-22:15

EIBAR, Rialto**"Buscando a Nemo"**

28, barixakua: 19:30-22:15
29, zapatua: 17:00-19:30-22:15
30, domekia: 17:00-19:30-22:15
1, astelehena: 19:30-22.15
2, martitzena: 19:30
3, eguaztena: 19:30

BARREnek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketan erantzukizunik.

**"The Italian Job"**

Zuzendaria: F. Gary Gray.

Antzezleak: Mark Wahlberg, Charlize Theron, Edward Norton.

+7 urte

Lapur talde baten barnean gertatzen diren traizio eta mendekuak dira pasa den mendeko 60. hamarkadako filme baten "remake" honetako argudio nagusiak. Lapurreta perfektua egiteko zorian dagoen lapur talde bat osatzen dute, baina azken uanean dena bertan behera geratuko da taldeko kide baten traizioaren erruz. Urrea berreskuratzea eta mendekua bihurtuko dira taldearen xede bakarrak. Plan harrigarri eta ikusgarria prestatuko dute helburuak lortzeko.

ZINEA



A

ste honetako erretratu zaharra herritar batek laga digu. Argazkia 1941. urte ingurukoa da, eta Debako txokoren batean aterata dago. Ikusten denez, garai hartan ere bazegoen Elgoibartik Debara joateko ohitura, eta argazkian ageri den koadrila hau, egun pasa joan zen kostaldera. Argazkian ikusten dugun bezala, denak toki berdinerara begira daude, gauza ederren bati begira, beharbada. Gogora ditzagun zeintzuk diren erretratuan ageri zaizkigun mutil hauek.

Goian, ezkerretik eskumara: **Javier Izagirre “Upai”** (†), **Pablo Eguren** (†), eta **Juanito Aizpitarte “Erreketa”** (†).

Behean, eserita, ezkerretik eskumara: **Alfredo Arrillaga** (†), **Luis Lecea** eta **Gregorio Arrese** (†).



Metala

2003ko azaroak 23

*Metala joan zaigu.
Benetan laguna!
Pentsatzen zuena esateko, hitza baino,
begirada erabiltzen zuen laguna
Bere ahotsa ez entzun arren
ondoan senti arazten zen laguna
Egon behar zen tokian, hori bai!
ixil-ixilik agertzen zen laguna
Jai giroan, alaitasuna transmititzen zuen laguna
Benetan laguna!
Agurtu nahi dugu ba, laguna
bainan, batez ere, agurtu nahi dugu GIZONA*


*Denda
Berria*

Sibarren

aTerbe

LIBURUDENDA

Zezenbide 9
Tel./Faxa: 943 20 22 30
20600 EIBAR
(Gipuzkoa)



ZEZEN-BIDE

AUTO ESKOLA



Kotxerako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!




ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

San Frantzisko, 43 - 1. solairua
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

Ego Gain, 4 behea
(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR



AZOKA

